

## 9. KOSTUAK

Gure negozioia aurrera ateratzeko kostuak honako hauek izango dira:

Hasteko, gure karrtoa egiteko, pabiloi bat edukiko dugu. Pabiloi hori hasieran ez da kostu bat izango, Haizearen aitak utziko digulako. Baina geroago, enpresak aurrera egin ahala, pabiloi handiagoa behar izango dugunez, horren alokairua bilatuko dugu eta hori 500 euro hileko kostu finkoa izango litzateke. Beste bi kostu finko makineria eta bulegoa izango litzateke. Makineriari buruz ari garenean, hasieran eskatutako pieza guztiak batzeko erosiko ditugun makinetaz hitz egiten ari gara. Bulegoa azken finean hiriaren erdigunean alokatuko dugun lokal bat izango da eta bertan karritoari buruzko informazioa eman eta karritoak alokatzeko aukera emango dugu, herri horretako supermerkatuan ez egotekotan.

Beste alde batetik badaude kostu aldakorrak, hau da, ekoiztako kopuruarekin aldatzen direnak. Esaterako, garraioa, guk supermerkatuei salduko dizkiegun karritoak eramateko kontratatuko ditugunak, hain zuzen ere eta horren kostua aldatuz joango da produkzioa igotzen den heinean, izan ere, zenbat eta produktu gehiago saldu, hainbat eta bidai gehiago egin behar izango ditu.

Azkenik kontuan hartu behar dugu ere eskala ekonomikoa, hau da, ekoizpen handiarekin unitateko kostua jaitsi. Horrela, enpresa hazten den heinean, gure produkzioa ere handitu egingo da, eta horregatik hornitzaileei pieza gehiago erosi behar izango dizkiegu. Beraz, gure oinarritzko produktuen kantitatea igotzean, hornitzaileei kopuru handiagoan erosiko diegunez, orduan haiek merkeago utziko dizkigute produktuak.

Pabiloia eta lokala	500€/hilabetero	x1	500€
Garraioa	35€	x3	105€
Bulegoa	300€	x1	300€
Piezak			
		<b>Guztira</b>	